

HITZARMENAK

ONURADUNA

SAN JORGE PARROKIA

HELBURUA

Hitzarmen honek SKA eta San Jorge parrokiaren arteko lankidetzaren arbitratzea du helburu, San Jorge Elizako hodi bidezko organoa erabiltze aldera. Horrela, udalak herrian musika-jarduerak sustatzeko duen helburua beteko da, musika-tresna hau Santurtzin bakarria izanik berezia delako herriarentzat. Horrela bada, SKAk organoa konpontzeko gastuetan lagundu egingo du, interes kultural handikoa ondasuna delako.

IRAUPENA

Hitzarmena berrogeita hamar urtetan egongo da indarrean, berau sinatzen denetik zenbatzen hasita.

ZENBATEKOA

20.000,00 EURO

PRESTAZIOAK

ONURADUNA

HELBURUA

ITSAS-ALDE TXISTULARI TALDEA KULTURA ELKARTEA

Hitzarmen honek Itsas Alde Txistulari Taldea Kultura Elkarteari zenbait kontzertu eta jarduera egiteko bidea erraztea du helburu, hitzarmen honen 3. klausulan adierazitako terminoetan. Hori guztiori herrian musika toki itxi zein zabaletan zabaltzea sustatze aldera udalerriko auzoetan musika arloan lanean ari diren elkarte eta udal erakundeekin lankidetzan.

Itsas Alde Txistulari Taldea Kultur Elkarteak adierazi du jakitun dela SGAEri eskatu behar diola hitzarmen honen helburua den programazioaren obrak jotzeko baimena, bera baita horien egile-eskubideen jabea. Hori guztiori, Egile eta Editoreen Elkarte Nagusiak (SGAE) eta Euskal Udalerrien Elkarteak (EUDEL) 2000. urteko azaroaren 24an sinatutako hitzarmenari jarraituz, zeini Santurtziko Udala atxiki zitzaion 2001eko urtarrilaren 29an Gobernu Batzordeak egindako saioan (01/3) hartutako erabakiaren bidez.

2016rako hurrengo egutegi hau ezarri da:

URTARRILAK 5 ERREGIEN KABALGATA

APIRILA	SAN JORGE JAIK:	23an SAN JORGE JAI EGUNEKO KALEJIRA 25ean BURU HANDIEN KALEJIRA
EKAINA	AUZOETAKO JAIK:	KALEJIRA DONIBANEN KALEJIRA MIRABUENON KALEJIRA LARREAN KALEJIRA KABIEZESEN
UZTAILA	KARMENGO JAIK:	08an AURRESKUA OMENALDIAN 08an TXISTULARIEN XV. KONTZERTUA 09an BURU HANDIEN KALEJIRA 16an KALEJIRA (MUSIKA BANDAREKIN BATERA) MEZA NAGUSIA ETA GERO 16an KARMENGO AMAREN PROZESIOA 17an JAI BUKAERAKO EKITALDIA, MENTXUREN AGURRA 25ean EKITALDIA GALIZIAKO ETXEAN SANTIAGO EGUNEAN EDO MAIATZEAN (LETRA GALEGOEN EGUNEAN)
IRAILA	AUZOETAKO JAIK:	KALEJIRA MAMARIGAN KALEJIRA MAHASTIETAN

ABENDUA: 24an OLENTZEROREN KALEJIRA

IRAUPENA

2016. URTEA

ZENBATEKOA

10.000,00 EURO

PRESTAZIOAK

2016. urtea amaitu aurretik, Itsas Alde Taldea Kultur Elkartek 2017ko ekitaldien egutegia aurkeztuko du. 2016koaren termino berdintsuetan. Aldez aurretik Autonomiadun Erakundeak egutegi berria onartu beharko du.

Urtea amaituta, aurrekontuaren likidazioa eta egindako gastuak egiaztatzen dituen agiriak aurkeztuko ditu 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen. Itsas Alde Txistulari Taldea Kultur Elkartek 18 ekitaldi egiteko konpromisoa hartzen du, hurrengoei jarraituz gauzatu beharko direnak:

Hitzarmen honen ekitaldien publizitatean Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Elkartek parte hartuko duela adierazi beharko da. Horretarako, Autonomiadun Erakundearen identifikazio-anagrama emango zaio.

PROPAGANDA: SKAren logotipoa erabiliko da

Kartela argitaratzekotan, logotipoa ezin izango da kartelaren %15 baino txikiagoa izan.

Eskuorri edo triptikorik argitaratzekotan, logotipoa lehenengo orrialdearen beheko aldean azaldu beharko da eta ezin izango da orriaren %20 baino txikiagoa izan.

ONURADUNA

HELBURUA

ARTE PLASTIKOEN ELKARTE SANTURTZIARRA

Hitzarmen honek arte plastikoen arloan udalak kultura-jarduerak sustatzeko duen helburua bermatzeko lankidetzara arbitratzea du helburu, Arte Plastikoen Elkarte Santurtziarrari laguntza ekonomikoa emanez.

Arte Plastikoen Elkarte Santurtziarrak honako tailer hauek egiteko konpromisoa hartu du: Pintura, zeramika, kakorratza, esku-lanak, joskintza eta jantzigintza, patroigintza, tapizak, esmaltea labean, patchwork-a, marrazkigintza eta yoga. Bidean dira tiffanys eta saskigintza tailerrak.

IRAUPENA

2016. URTEA

ZENBATEKOA

10.000,00 EURO

PRESTAZIOAK

2016. urtea amaitu aurretik, Arte Plastikoen Elkarte Santurtziarrak 2017ko tailerren egutegia aurkeztuko du 2016koaren termino berdintsuetan. Aldez aurretik Autonomiadun Erakundeak egutegi berria onartu beharko du.

Urtea amaituta, aurrekontuaren likidazioa eta egindako gastuak egiaztatzen dituen agiria aurkeztuko ditu 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen. Programen publizitatean, edozelakoak direla ere, udalaren parte hartzea adierazi beharko da euskaraz eta gaztelaniaz, logotipo eta guzti, zein Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Erakundeak emango dion. Ez da berorren ordezkori inongo testu edo irudirik onartuko, ez eta antzik badu ere.

PROPAGANDA: SKAren logotipoa erabiliko da

Kartela argitaratzekotan, logotipoa ezin izango da kartelaren %15 baino txikiagoa izan.

Eskuorri edo triptikorik argitaratzekotan, logotipoa lehenengo orrialdearen beheko aldean azaldu beharko da eta ezin izango da orriaren %20 baino txikiagoa izan.

Betebehar hauek bete ezean, diru-laguntza baliogabetu eta jasotakoa itzuli beharko da .

ONURADUNA

HELBURUA

MENDI ALDE EUSKAL DANTZA TALDEA

2016an hitzartu zen programa bat egitea, jaietan erraldoi eta buru-handiak ateratzekoa hain zuzen.

a) Hiru (3) kalejira egitea erraldoi eta guzti 2016ko San Jorge eta Karmengo jaietan.
Kalejirak jai egitarauaren arabera ezarriko dira, baina gutxienez Mendi Alde Dantza Taldeko 10 lagunek hartu beharko dute parte.

b) Erraldoien elkarretaratze bat antolatzea 2016ko Karmengo jaietarako.

c) Buruhandien lau (4) kalejira egitea, talde horretako kideek eramanak, jaietarako ezartzen den egutegiari jarraituz ezartzen den ibilbidea eginez.

d) Santurtziko auzoetako jai-batzordeei buru eta jantzi egokiak emango zaizkio. Gehienez bi kalejira egingo dira auzoko.

Mendi Alde Dantza Taldeak neurriak hartuko ditu auzoetako jai-batzordeek utzitako materiala (buruak eta jantziak) behar bezala erabiliko dutela bermatu dezaten.

Mendi Alde Dantza Taldeak bere gain hartuko ditu udalarenak diren bi erraldoi eta sei buruhandien mantenutik eratorritako gastuak, bai eta jantziak garbitzetik eratorritakoak ere, baina buruhandientzat jantzi berriak egin beharko dira, auzoetako jaietan erabiliko direnak.

IRAUPENA

2016. URTEA

ZENBATEKOA

2.700,00 EURO

PRESTAZIOAK

2016. urtea amaitu aurretik, Mendi Alde Dantza Taldeak 2017ko ekitaldien egutegia aurkeztuko du 2016koaren termino berdintsuetan. Aldez aurretik Autonomiadun Erakundeak egutegi berria onartu beharko du.

Urtea amaituta, aurrekontuaren likidazioa eta egindako gastuak egiaztatzen dituen agiriak aurkeztuko ditu 2017ko urtarrilaren 31 baino lehen. Programen publizitatean, edozelakoak direla ere, udalaren parte hartzea adierazi beharko da euskaraz eta gaztelaniaz, logotipo eta guzti, zein Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Erakundeak emango dion. Ez da berorren ordezkori inongo testu edo irudirik onartuko, ez eta antzik badu ere.

PROPAGANDA: SKAren logotipoa erabiliko da

Kartela argitaratzekotan, logotipoa ezin izango da kartelaren %15 baino txikiagoa izan.

Eskuorri edo triptikorik argitaratzekotan, logotipoa lehenengo orrialdearen beheko aldean azaldu beharko da eta ezin izango da orriaren %20 baino txikiagoa izan.

ONURADUNA

ENCRUCIJADA ANTZERKI TALDEA

HELBURUA

Hitzarmen honek eszena-arten arloan udalak kultura-jarduerak sustatzeko duen helburua bermatzeko lankidetzazko arbitratzea du helburu, Encrucijada Antzerki Taldeari laguntza ekonomikoa emanez.

Laguntza horren ordainetan, Encrucijada Antzerki Taldeak eszena-arteekin lotutako tailerrak emango ditu, hitzarmen honen laugarren klausulan adierazitako terminoetan.

2016an honako tailer hauek egingo dira hain zuzen:

Eszena-mugimendu eta clown-tailerrak
Eskoletan antzerki-tailer egonkorra abian jartzea.
Antzerkian hasteko tailerrak lehen mailako goi zikloko ikasleentzat.

IRAUPENA

2016. URTEA

ZENBATEKOA

2.700,00 EURO

PRESTRAZIOAK

Programen publizitatean, edozelakoak direla ere, udalaren parte hartzea adierazi beharko da euskaraz eta gaztelaniaz, logotipo eta guzti, zein Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Erakundeak emango dion. Ez da berorren ordezkotza inongo testu edo irudirik onartuko, ez eta antzik badu ere.

PROPAGANDA: SKAren logotipoa erabiliko da
Kartela argitaratzekotan, logotipoa ezin izango da kartelaren %15 baino txikiagoa izan.

Eskuorri edo triptikorik argitaratzekotan, logotipoa lehenengo orrialdearen beheko aldean azaldu beharko da eta ezin izango da orriaren %20 baino txikiagoa izan.

ONURADUNA

Denontzako Auzo Elkartea Mahastiak Elkartea

HELBURUA

Hitzarmen honek udalak 2017ko erregeen kabalgata tradizionala sustatzeko duen helburua bermatzeko lankidetzara arbitratzea du helburu, DAEM elkarteari laguntza ekonomikoa emanez.

DAEM elkarteak 2017ko Erregeen Kabalgatarako programaturako honako ekitaldi hauek egingo ditu: Urtarrilaren 3an erregeen postariak Santurtziko umeak jasoko ditu. Urtarrilaren 5ean goizez herriko egoitzetan dauden adinekoei bisita egingo zaie eta arratsaldean erregeak Santurtziko portura helduko dira, herriko kaleetan zehar kabalgata egingo dute eta umeak Casa Torre jauregian jasoko dituzte.

DAEM elkarteak boluntarioen jantzi eta atrezzoak hartuko ditu bere gain. Eta horrez gain, kabalgatarekin lotutako ekitaldietako 150 bat rol betetzeko deialdia eta koordinazioa egingo ditu.

IRAUPENA

2017ko URTARRILAREN 5ean

IMPORTE

6.000,00 EURO

PRESTRAZIOAK

Programen publizitatean, edozelakoak direla ere, udalaren parte hartzea adierazi behar da euskaraz eta gaztelaniaz, logotipo eta guzti, zein Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Erakundeak emango dion. Ez da berorren ordezkotako inongo testu edo irudirik onartuko, ez eta antzik badu ere.

PROPAGANDA: SKAren logotipoa erabiliko da Kartela argitaratzekotan, logotipoa ezin izango da kartelaren %15 baino txikiagoa izan.

Eskuorri edo triptikorik argitaratzekotan, logotipoa lehenengo orrialdearen beheko aldean azaldu behar da eta ezin izango da orriaren %20 baino txikiagoa izan.